

IKASGAIAREN izena 1.11. Proiektua: komunikazio digitala	Kreditoak 6 ECTS
Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta bigarren SEIHILEKOA	
Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak	
<p>Gaitasun orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Enprendizajea eta berrikuntza Begirada eta jarrera sortzailea garatu errealitatearen aurrean, eta inizatiba eta espiritu ekintzailea bultzatu, egoera eta eszenategi berrietara egokitzen saiatu, beste pertsona batzuekin batera lan egiten jakin, pertsona horiek helburu komun bat lortzera zuzendutako dinamika batean inplikatzeko eta gidatzen jakin, egin beharreko lanaren eta lan horrek dituen ezaugarrien (kalitatea, epeak, eta abar) ikuspegi orokorra eskaini, eta norberaren eta taldearen interesak orekatu. ○ Talde-lana Helburu komunak lortzera bideratutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoak aurre eginez. ○ Ikasten ikasi Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko. <p>Gaitasun espezifikokoak:</p> <p>-Ezagupenak:</p> <p>Ikus-entzunezkoen produkzio eta zabalkunderako teknika eta prozesuen ezagutza eta aplikazioa bere fase guztietan, teknika-baliabideak, giza baliaabideak eta aurrekontu-baliabideak bere euskarri guztietan (zinema, telebista, bideoa, multimedia, etab.) antolatze eta kudeatzeko ikuspegiak hasi eta berorien komertzializazioraino.</p> <p>Ikus-entzunezkoen produkzio eta zabalkunderako teknika eta prozesuen ezagutza eta aplikazioa bere fase guztietan (zineman, nola telebistan, bideoan, eta multimedian), hasierako ideiatik azken ukituraino eszenaratzearen ikuspuntutik begiratuta.</p> <p>Bertako hizkuntzen eta ingelesaren ahozko zein idatzizko erabilera zuzenaren ezagutza, hedabideetako adierazpen modu profesional gisa.</p> <p>Ikus-entzunezko hedabideetara aplikatutako teknologien ezagutza teoriko-praktikoa eta aplikazioa (argazkigintza, irratia, soinua, telebista, bideoa, zinema eta multimedia-euskarriak).</p> <p>Ikus-entzunezkoetan edo komunikazioan eragina duten mekanismo legegileen ezagutza teoriko-praktikoa, hala nola ezagutza hori ikus-entzunezko ekoizpenetan aplikatzeari dagokion erregimen juridikoa. Ikus-entzunezko komunikazioaren printzipio etikoen eta arau deontologikoen ezagutza barne</p> <p>Irudi espazialaren eta espazioko errepresentazio ikonikoen ezagutza —hala irudi finkoan nola ikus-entzunezko irudian—, zuzendaritza artistikoaren osagaiena barne. Ikuspegi estetiko eta narratibotik begiratuta irudiek eta soinuek ikus-entzunezko euskarrietan eta ikus-entzunezko teknologietan dituzten harremanak ere ezagutza horien barruan sartzen dira. Baita ikusi-komunikaziorako eta irudiaren bidezko pertsuasiorako espezifikoki garatutako eredu psikologikoen ezagutzak ere.</p> <p>-Trebetasunak:</p> <p>2.5. Argazki-produkzioa antolatze teknika eta prozesuak erabiltzeko gaitasuna,</p>	

bai eta irudi finkoaren alorreko sorkuntza-teknikak eta sorkuntza-prozesuak erabiltzeko ere, hala ingurune analogikoetan nola digitaletan.

2.6. Multimedia ekoizpenaren eta material interaktiboen eraikuntzaren fase desberdinen antolaketa eta sorkuntzarako teknikak eta prozesuak erabiltzeko gaitasuna.

2.16. Diseinu grafikoaren eta multimedia eta hipermedia produktuen alorreko fase desberdinetan sorkuntza eta zabalkunde teknikak eta prozesuak aplikatzeko gaitasuna, ikuspuntu teoriko eta praktikoa batetik begiraturik.

2.19. Edozein eratako ikus-entzunezko dokumentuak datu-base batean bilatzeko, hautatzeko eta sistematizatzeko eta bitarteko digitalen bidez haiek ikus-entzunezko euskarri desberdinetan erabiltzeko gaitasuna.

Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena.

KOMUNIKAZIO DIGITALAREN PROIEKTUA aurrera eramatean, ikasleak garatuko dituen ezagutzak eta gaitasunak ikus-entzunezko eta soinu-produkzio eta posprodukzio diseinuaren profilerako gaituko dute ikaslea Internetera eta ingurune digitaletara bideratutako produkzioen kudeaketaren bidez (sareko argazki eta bideoen kudeaketa, ikus-entzunezko materialaren txertatzea), bai eta ikus-entzunezko zuzendari, gidoilari eta errealizadore profilerako ere (gidoigintza, erredakzioa eta multimedia kudeaketa).

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana

Oinarritzko metodologia:

- ✓ Proiektuetan oinarritutako metodologia (POPBL), ikasgaiari eta profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatzeko. Metodologia horrek ikaslearengan jartzen du arreta osoa. Ikasleek, elkarlanean, eta tutorearen laguntzarekin, argazki-erreportaje bat egin beharko dute, hasieratik hasita gelan erakusgai jartzeraino.

Metodologia osagarria hautazkoa (azpian azaltzen diren bi aukeren artean hautatzeko):

- ✓ Kasuetan oinarritutako ikaskuntza, edizio eta idazketa digital mota desberdinak aztertzeke.
- ✓ Arazoetan oinarritutako ikaskuntza, egoera praktikoa espezifikoki bati irtenbidea emateko.

Prestakuntza-jarduerak

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak edo teorikoak.
- ✓ Kasuak eta arazoak aztertzeke tailerrak.
- ✓ Praktikak egin.
- ✓ Kasuaren azterketara bideratutako tutoretza akademikoak eta sareko arazoak.
- ✓ Proiektua egin.
- ✓ Praktika, tailer eta proiektuaren bidez egitekoak:
 - Blogen sorrera eta konfigurazioa.
 - Multimedia-edukien kudeaketa.
 - Elkarlan tresnak (GoogleDocs, SlottedShare, Wikis, Flickr, Youtube...).
 - Produktibitate-tresnak (Google Reader, del.icio.us...).

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Kasu eta arazoaren taldekako ikasketa.
- ✓ Taldekako lan praktikoa.
- ✓ Proiektuaren faseak egiteko lanak.

Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema

- ✓ Praktika mota desberdinak egin.
- ✓ Proiektua egiteko aurrera eramandako prozesuaren portafolioa aurkeztu.
- ✓ Proiektua emaitza gisa.
- ✓ Proiektuaren memoria esplikatibo eta baloratiboaren aurkezpena.
- ✓ Beste jarduerak osagarri batzuk

Edukien laburpena

- Blog bat egin, banaka zein taldeka.
- Posa zerrenda bat sortu talde bakoitzarentzat.

- Lana partekatzeko egutegia ezarri.
- Sarean pakete ofimatiko bat erabili.
- Sareko argazki eta bideoen kudeaketarako kontu bat sortu.
- Blogean ikus-entzunezko materialak eta mapak txertatzeko teknikak.
- Edukien sindikazioa RSS bidez.
- Sarean dauden markatzaile sozialen kudeaketa.